

Kooperatiba Elkarteko ESTATUTUAK



Orioko
Herri
Ikastola

Herri Onurako Kooperatiba

Kooperatiba Elkarteko ESTATUTUAK



1999-09-17an Orioko Herri Ikastola Kooperatiba Elkartea
bihurtu zen notario aurrean.

2000ko urriaren 3an Kooperatiba Elkarteen Liburuan inskribatua,
1531. orrialdean, 1go idazpenean, 2000.0.044 zenbakiarekin.

AURKIBIDEA

I. ATALBURUA. XEDAPEN OROKORRAK	7
1. ATALA.- IZENA	7
2. ATALA.- ELKARTEAREN EGOITZA	7
3. ATALA.- ELKARTEAREN HELBURUA	7
4. ATALA.- IRAUPENA	8
5. ATALA.- LURRALDE-EREMUA	8
II. ATALBURUA. BAZKIDEAK ETA HAUEN ARAUBIDE INSTITUZIONALA ..	9
6. ATALA.- BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK	9
7. ATALA.- BAZKIDEAK ONARTZEKO BALDINTZAK	10
8. ATALA.- ONARPENEI BURUZKO ERABAKIAK	11
9. ATALA.- ONARPENARI BURUZKO – ERABAKIAREN AURKAKO ERREKURTSOAK	11
10. ATALA.- PUBLIZITATEA ETA JAKINARAZPENA	11
11. ATALA.- BAZKIDEEN BETEBEHARRA	11
12. ATALA.- BAZKIDEEN ESKUBIDEAK	12
13. ATALA.- INFORMAZIO ESKUBIDEA	13
14. ATALA.- INFORMAZIO-ESKUBIDEAREN MUGAK ETA BERMEAK	14
15. ATALA.- BAZKIDEAREN BORONDATEZKO BAJA	14
16. ATALA.- BAZKIDEAREN DERRIGORREZKO BAJA	15
17. ATALA.- KANPORATZEA	15
18. ATALA.- BAZKIDEEN HUTSEGITEAK	15
19. ATALA.- HUTSEGITEENGATIKO ZIGORRAK	17
20. ATALA.- ZIGOR-PROZEDURA	17

III. ATALBURUA. KOOPERATIBA ELKARTEAREN ORGANOAK	19
21. ATALA.- BATZARRA. KONTZEPTUA ETA AGINPIDEAK	19
22. ATALA.- BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA	20
23. ATALA.- BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA	21
24. ATALA.- BOTO-ESKUBIDEA	22
25. ATALA.- GEHIENGOAN OINARRITUTAKO ARAUBIDEA	23
26. ATALA.- BATZAR NAGUSIAREN AKTA	23
27. ATALA.- BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIEN AURKAPENA	24
28. ATALA.- KOOPERATIBAREN EKONOMIA-, ANTOLAMENDU- EDO FUNTZIO-EGITURAREN FUNTSEZKO ALDAKETA	25
29. ATALA.- ARTEZKARITZA KONTSEILUA: IZAERA ETA AGINPIDEAK	25
30. ATALA.- ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN OSAERA. AUKERAKETA, KARGU-UZTE ETA POSTU HUTSAK	27
31. ATALA.- ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA	29
32. ATALA.- ARTEZKARITZA KONTSEILUARI BURUZKO XEDAPENAK	29
33. ATALA.- ARTEZKARITZA KONTSEILUKO KIDEEEN ERANTZUKIZUNA	30
34. ATALA.- ERABAKIEN AURKAPENA	31
35. ATALA.- ZUZENDARITZA, IZENDAPENA ETA KARGU-UZTEA	31
36. ATALA.- ZUZENDARIAREN EGINBEHAR ETA ERANTZUKIZUNAK	32
37. ATALA.- ZAINITZA BATZORDEA	32
IV. ATALBURUA. KOOPERATIBAREN EKONOMIA-ARAUBIDEA	35
38. ATALA.- ERANTZUKIZUNAK	35
39. ATALA.- KAPITAL SOZIALA	35

40. ATALA.- DERRIGORREZKO EKARPENAK	35
41. ATALA.- KAPITAL SOZIALERAKO BORONDATEZKO EKARPENAK	36
42. ATALA.- EKARPENEN ORDAINKETA ETA EGUNERATZEA	36
43. ATALA.- EKARPENEN ESKUALDAKETA	36
44. ATALA.- EKARPENEN ITZULKETA	37
45. ATALA.- PARTAIDETZA BEREZIAK	37
46. ATALA.- BESTELAKO FINANTZAKETAK	37
47. ATALA.- SOBERAKIN GARBIAK FINKATZEA	38
48. ATALA.- SOBERAKINEN BANAKETA	38
49. ATALA.- KOOPERATIBAREN DERRIGORREZKO FONDOAK	39
50. ATALA.- GALEREN EGOZTEA	39
51. ATALA.- KONTUEN IKUSKAPENA	40
V. ATALBURUA. KOOPERATIBA ELKARTEAREN DOKUMENTAZIOA ETA KONTABILITATEA	41
52. ATALA.- KOOPERATIBA ELKARTEAREN DOKUMENTAZIOA	41
53. ATALA.- KONTABILITATEA	41
54. ATALA.- URTEKO KONTUEN GORDAILUA	42
VI. ATALBURUA. DESEGITEA ETA KITAPENA	43
55. ATALA.- DESEGITEAREN ARRAZOTIAK ETA ERABAKIA	43
56. ATALA.- KITAPENA	44
AZKEN XEDAPENAK	44
LEHENA.- KOOPERATIBA-ARBITRAJEA	44

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ATALA.- IZENA

ORIOKO HERRI IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA izena duen Irakaskuntzako Kooperatiba Elkartea eratu da Orion. Elkarite hau Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen xedapenei, Lege horren erregelamenduzko garapenari eta aplikagarri zaizkion legezko aginduei lotuta egongo da, bai eta, jakina, Estatutu hauei, Barne Araudiak ezartzen duen Estatutu hauen garapenari eta Elkarteko organo aginpidedunek balio osoz hartutako erabakiei ere.

2. ATALA.- ELKARTEAREN EGOITZA

Elkaritearen egoitza Orion dago kokatuta, Abeslari kaleko 8an, eta Udal-barruti berean aldatzeko ez da Batzar Nagusiaren erabakirik behar, erabakia Artezkaritza Kontseiluko kideek hartuko dute eta Kooperatiben Erroldan inskribatuko den eskritura publikoan jasoarazike da.

3. ATALA.- ELKARTEAREN HELBURUA

Kooperatiba Elkaritearen helburua, antolatzen duen jarduera-multzoaren bitartez (irakaskuntza-jarduerak, eskolaz kanpokoak eta hauei lotutakoak) bere ikasleen hezkuntza-, kultur eta kirol-sustapena lortzea eta zerbitzu osagarriak eta irakaskuntza-jarduerak errazten dituztenak eskaintzea da. Irabazizko xede oro baztertuta geratzen da eta kooperatiba-itzulkinen banaketa debekatu egingo da. Hori guztia ondoko helburuei begira:

- A) Indarrean dagoen legerian ezarrita dauden eta norberaren gaitasunen arabera bere garaian ofizialki edo pribatuki ezar daitezkeen unibertsitatez kanpoko prestakuntza-maila desberdinetarako sarbidea ematea.
- B) Ikasleak giza balore eta gaitasunez hornitzea, pertsonak beren osotasunean hartuta. Horrela, trebakuntza egokia emango da adin desberdinetan eta etorkizuneko exijentziei begira, ikasleek bizitzaz gozatu ahal izan dezaten eta pertsonak diren neurrian dagozkien erantzukizunak beren gain har ditzaten.

- C) Ikasleak prestakuntza euskaldun batean heztea. Horrela, kasleek euskara menperatuko dute, euskara eta euskal kultura transmititu, garatu eta bultzatzeaz arduratuko dira eta Euskal Herriaren lurraldetasun, historia, gizarte, politika, ekonomia eta kulturaren errealitatean integratuta egongo dira.
- D) Ikasleak pluraltasunean (pertsonek aniztasun fisikoa, gaitasunena, sexuala, soziala, ekonomikoa eta abar kontuan hartuta) eta ideia eta portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso desberdinekiko erresperuan heztea.
- E) Ikasleengan jarrera demokratikoak lantzea: giza harremanetan, talde-lanetan, adierazpenetan, erabakietan eta abar. Zentzu honetan, elkarrizketa, tolerantzia, partehartze aktiboa, jarrera kritikoa, lankidetzeta, elkartasuna eta abar jarriko dira praktikan.
- F) Kalitatea etengabe bilatzea, metodologia eta eskuragarri dauden baliabide guztiak helburu hauek lortzeko ekiritza-bideetara egokituz.
- G) Ikasleen familiei laguntza ematea prestakuntza integrala eta gurasoen lankidetzeta arduratsua lortzearen, hori guztia kultura ahalik eta maila gehienetara zabaltzeari begira.
- H) Ahal den neurrian, hezkuntza-komunitateko kide guztien etengabeko prestakuntza sustatzea.
- I) Bere hezkuntza-proiektua autonomiaz jokatzeko; aginpide zabalak eta erabakiak hartzeko ahalmena, kontrol sozialarekin osatuta.
- J) Euskara eta euskal kultura ikasi, transmititu, garatu eta zabaltzeaz arduratutako eskola-erakunde gisa agertzen den Ikastolen herri-mugimenduarekin elkartasunez parte hartzea.
- K) Euskal Eskola, Euskal Herriko eskola nazionala lortzea.

4. ATALA.- IRAUPENA

Kooperatiba honen iraupena zehaztu gabeko denbora baterako ezartzen edo finkatzen da.

5. ATALA.- LURRALDE-EREMUA

Jarduteko lurralde-eremua Euskal Autonomia Erkidegora zabaltzen da. Lurralde eremu hau bazkideekin kooperatibizatutako Elkarteko eragiketeki scilik dagokiela ulertu behar da, ez ordea Kooperatibak garatutako beste edozein jarduera-motari.

II. ATALBURUA

BAZKIDEAK ETA HAUEN

ARAUBIDE INSTITUZIONALA

6. ATALA.- BAZKIDE IZAN DAITEZKEEN PERTSONAK

BAT.- Zuzeneko bazkide onuradunak edo bazkide erabiltzaileak:

- A) Kooperatiba honetan seme-alabak edo tutoretzapekoak dituzten gurasoak edo tutoreak.
- B) Adin txikiko ikasleen edo ikasle ezgaituen legezko zaintzan eta babesean diharduten entitate eta erakunde publikoak eta erabilgarritasun publikoko pribatuak, onegintzazkoak barne.

BI.- Bazkide laguntzaileak:

- A) Kooperatiba Elkartearen helburua erabat burutu ahal izan gabe helburu hau lortzen edo hobetzen laguntzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak.
- B) Erabiltzaile izateari utzi arren Kooperatiban era honetan parte hartu nahi duten bazkideak.

Nolanahi ere, bazkide hauek guztiak gehienez ere botoen herenaren titularrak izango dira, bai Batzar Nagusian, bai Artezkaritza Kontseiluan.

HIRU.- Kooperatibak irakasleak nahiz irakasleak ez diren langileak bazkide laguntzaile gisa inkorporatzea erraztuko du. Halaber, Legearen arabera, lan-bazkideak ere egon daitezke.

LAU.- Bazkide ez-aktiboak.

Lan-bazkideak eta erabiltzaileak izan daitezke bazkide ez-aktibo izaera horri utzi ondoren, beti ere Artezkaritza Kontseiluak baimena ematen dienean. Ezin izango dira Kooperatibako Artezkaritza Kontseilukide izan.

Bazkide hauen boto guztiak ezingo dute Kooperatibako boto guztien bostena gainditu.

BOST.- Nolanahi ere, bazkide laguntzaileen eta ez-aktiboaren guztizko boto-kopurua gehienez ere Kooperatibako guztizko botoen erdia izango dela errespetatu beharko da.

7. ATALA.- BAZKIDEAK ONARTZEKO BALDINTZAK

BAT.- Pertsona bat bazkide erabiltzaile gisa onartzeko, pertsona horrek ondoko baldintzak bete beharko ditu:

- A) Hemezortzi urtetik gorakoa izatea edo behar adinako nortasun juridikoa izatea.
- B) Kapital sozialerako ekarpenak egiteko konpromisoak onartzea eta Estatutu hauetan finkatutako hasierako derrigorrezko ekarpena egitea.
- B) Estatutu hauetan bazkide hauentzat ezarritako partaidetza-konpromisoa onartzea:
- D) Kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakiak bete beharra onartzea eta kooperatibei buruz indarrean dagoen legeria, Estatutu hauek eta, hala badagokio, Barne Araudia errespetatzea.
- E) Kooperatiban ikasle gisa sar daitezkeen seme-alabak edo tutoretzapekoak edukitzea.
- F) Artezkaritza Kontseiluari zuzendutako eskari baten bidez onarpera eskatzea.

BI.- Pertsona bat bazkide laguntzaile gisa onartzeko, pertsona horrek ondoko baldintzak bete beharko ditu:

- A) Hemezortzi urtetik gorakoa izatea edo behar adinako nortasun juridikoa izatea.
- B) Kapital sozialerako ekarpenak egiteko konpromisoak onartzea eta Estatutu hauetan finkatutako hasierako derrigorrezko ekarpena egitea.
- C) Estatutu hauetan bazkide hauentzat ezarritako partaidetza-konpromisoa onartzea.
- D) Kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakiak bete beharra onartzea eta kooperatibei huruz indarrean dagoen legeria, Estatutu hauek eta, hala badagokio, Barne Araudia errespetatzea.
- E) Artezkaritza Kontseiluari zuzendutako eskari baten bidez onarpena eskatzea.

HIRU.- Pertsona bat lan-bazkide gisa onartzeko, bazkide ororentzako onarpen-baldintza orokorrez gain pertsona horrek bere lan-prestazioa kontratatze gaitasuna izatearen baldintza bete beharko du bereziki.

LAU.- Pertsona bat bazkide ez-aktibo gisa onartzeko, pertsona horrek ondoko baldintzak bete beharko ditu:

- A) Bi eskola-ekitaldi oso edo partzialetan laneko bazkide izatea edo hiru urteko denboraidian bazkide erabiltzailea.
- B) Estatutu hauetan bazkide hauentzat finkatutako hasierako derrigorrezko ekarpena egiteko nahikoa izango den kapital sozialerako ekarpena edukitzea.
- C) Estatutu hauetan bazkide hauentzat ezarritako partaidetza-konpromisoa onartzea.
- D) Artezkaritza Kontseiluari bere bazkide-izaera gordetzeko eskatzea eta organo horrek Elkartearen barruan bere izaeraren aldaketa baimendu diezaion lortzea.

8. ATALA.- ONARPENEI BURUZKO ERABAKIAK

BAT.- Bazkideak onartzeari buruzko erabakiak Artezkaritza Kontseiluari dagozkio.

BI.- Artezkaritza Kontseiluak bazkideak onartzeari buruz hartutako erabakiak, bidezko arrazoi batean oinarrituta mugatu izango dira soilik:

A) Onartzeko baldintza objektiboak ez betetzean.

B) Lan-bazkideen kasuan, Kooperatibaren funzionamendurako behar objektiboetan eta probaldiaren ondoren Zuzendaritzak egindako txostenetan.

HIRU.- Onartzeko eskabide oro Artezkaritza Kontseiluak ebatzi beharko du hirurogei eguneko epean gehienez ere, jaso zeneko egunetik aurrera kontaktzen hasita. Epe hori igaro eta ebazpenik ez badago, onarpena onartutzat ulertuko da.

LAU.- Onarpenaren emate edo ukapena idatziz adieraziko da eta ezingo da Kooperatibaren helburuarekiko diskriminazio arbitrario edo bidegaberiak dakarten arrazoietan oinarritu.

9. ATALA.-

ONARPENARI BURUZKO – ERABAKIAREN AURKAKO ERREKURTSOAK

BAT.- Eskatzaileak onarpena ukatzeko erabakiaren aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango du Batzar Nagusiaren aurrean, 20 laneguneko epean balio osoz egindako jakinarazpena eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

BI.- Onarpena emateko erabakiaren aurka errekurtsoa aurkeztu ahal izango da organo beraren aurrean, 20 laneguneko epe berean erabakiaren jakinarazpena eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eta gutxienez bazkideen %10ek eskatuta.

HIRU.- Arestian aipatutako errekurtsoak interesatuari entzun ondoren ebatziko dira.

10. ATALA.- PUBLIZITATEA ETA JAKINARAZPENA

BAT.- Onartzeko eskaeraren aldeko nahiz kontrako erabakia idatziz jakinaraziko zaio eskatzaileari.

BI.- Erabaki hori Kooperatibaren iragarki-taulan emango da argitara eta erabakiaren eta bere argitalpenaren datak isladatu eta finkatu beharko ditu, argitalpenak izango baitu birtualtasuna aurkez daitezkeen errekurtsoen ondorioetarako.

11. ATALA.- BAZKIDEEN BETEBEHARRA

Bazkideek ondoko betebeharrak izango dituzte:

A) Batzar Nagusiaren eta deialdia egiten dieten gainerako organoen bileretara joatea.

B) Hautatuak izanez gero, dagozkien karguak onartzea, salbuespenerako arrazoirik ez badago bederen.

- C) Kooperatibaren helburua osatzen duten jardueretan parte hartzea. Horrela, Bazkide-mota bakoitzak parte hartzeko gutxieneko arau gisa ondokoak finkatzen dira:
- Erabiltzaileentzat: semealabak edo tutoretzapekoak Kooperatiban ematen diren irakaskuntza-zikloetara bidaltzea eta une bakoitzean finkatzen diren aldizkako kuotak ordaintzea.
 - Laguntzaile eta ezaktiboentzat: Kooperatibaren helburuaren garapen eta hobekuntzarako ematen zaizkien zereginak burutzeko eta zeregin horietan laguntzeko Kooperatibaren esanetara jartzea.
 - Lan-bazkideentzat: beren lan-prestazioaren erabateko arduraldia Kooperatiban.
- D) Kooperatibaren helburuarekiko lehian egon litekeen jarduerarik ez egitea eta egiten dituztenei ez laguntzea, Artezkaritza Kontseiluak espreski baimentzen duenean izan ezik.
- E) Kooperatibaren jarduerak eta datuak isilpean gordetzea hauen zabalkundeak Kooperatibaren interesak kaltetu ditzakeenean.
- F) <Kapital sozialerako ekarpenak aurreikusitako baldintzetan egitea.
- G) Batzar Nagusiak erabakitako kopuruan galeren egozte bere gain hartzea.
- H) Bazkide erabiltzaileek, beren seme-alaben edo tutoretzapekoen arduradunek hitzartutako bileretara joan beharko dute. Horrela, seme-alaben edo tutoretzapekoen eboluzio eta egoera jakinarazi eta azalduko zaie egiten ari diren ikasketei dagokienez.
- I) Lege eta Estatutuetakoa arauen ondoriozko gainerako eginbeharrak eta Kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakietatik eratoritzen direnak betetzea.

12. ATALA.- BAZKIDEEN ESKUBIDEAK

BAT.- Bazkideek eskubidea izango dute:

- A) Kooperatibako organoetako karguak hautatzeko eta kargu horietarako hautatuak izateko.
- B) Batzar Nagusiaren eta, hata badagokio, gainerako organoen erabaki guztiak hartzerakoan proposamenak egiteko eta hitz eta botoarekin parte hartzeko.
- C) Kooperatibaren jarduera guztietan parte hartzeko, inolako diskriminaziorik gabe.
- D) Dagozkien eskubideak erabili eta betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazioa jasotzeko. Hori guztia, Kooperatiba Elkartearen Estatutuen hurrengo atalean aurreikusitakoaren kaltetan izan.
- E) Kapital sozialerako ekarpenak eguneratu eta bere momentuan berreskuratzeko.
- F) Kooperatiba-itzulkinak jasotzeko, hala badagokio.

G) Bazkide erabiltzaileen kasuan, Kooperatibak izendatutako arduradunaren bitartez beren seme-alaben edo tutoretzapekoen eboluzioari buruzko informazioa aldizka jasotzeko. Horretarako, aldez aurretik hitzartutako bilera pertsonalizatuak egingo dira.

H) Legeen eta Estatutuen ondoriozko gainerako eskubide guztiak.

BI.- Nolanahi ere, bazkideek Lege eta Estatutuetako arauak eta Kooperatibako organoek balio osoz hartutako erabakiei jarraiki erabiliko dituzte euren eskubideak.

13. ATALA.- INFORMAZIO ESKUBIDEA

BAT.- Bazkide orok eskubidea izango du:

- A) Kooperatibaren Estatutuen eta, hala badagokio, Barne Araudiaren kopia bat eskatzeko.
- B) Kooperatibako Bazkideen Erregistro Liburua eta Batzar Nagusiaren Akta Liburua aztertzeko. Gainera, aldez aurretik arrazoitutako eskabidea egin ondoren, Artezkaritza Kontseiluak aktaren eta Batzar Nagusian hartutako erabakien kopia ziurtatua eman beharko dio, bai eta bazkideen erregistro-liburuko inskripzioen ziurtagiria ere.
- C) Artezkaritza Kontseiluak hartutako eta bazkideari berari dagozkion erabakien kopia ziurtatua eskatzeko.
- D) Kooperatibarekiko bere egoera ekonomikoari buruzko informazioa eskatzen duenetik gehienez ere hilabete bateko epean, Artezkaritza Kontseiluaren erantzuna jasotzeko.

BI.- Bazkideak kooperatibaren funtzionamendu edo emaitzen edozein alderdiri buruz beharrezkotzat hartzen dituen argitasun edo txostenak eskatu ahal izango dizkio idatziz Artezkaritza Kontseiluari. Argitasun edo txosten hauek, idatzia aurkeztu eta hamabost egun igaro ondoren egiten den lehen Batzar Nagusian eman beharko zaizkio.

HIRU.- Batzar Nagusian gai-zerrendari jarraiki ekitaldiko kontuei edo edozein proposamen ekonomikori buruz eztabaidatu behar denean, urteko kontuak isladatzen dituzten dokumentuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta, hala badagokio, Zaintza Batzordeak egindako kudeaketa-txostena edo kanpoko kontu-ikuskapena bazkideen eskura jarri beharko dira Kooperatibaren egoitzan, era honetan bazkideek deialdi-epean aztertu ahal izan ditzaten,

Epe horren barruan, bazkideek dokumentazio ekonomiko horri buruzko azalpen eta argitasunak eskatu ahal izango dituzte idatziz Batzarra egin baino bost eguneko aurretiaz gutxienez, era honetan Batzarrean erantzuna jaso ahal izatearren.

LAU.- Aurreko azpiatalean ezarritako eskubidearen kaltetan izan gabe, gutxienez Kooperatibako botoen %10 biltzen duten bazkideek beharrezkotzat hartzen duten

informazioa eskatu ahal izango dute idatziz. Artezkaritza Kontseiluak eskatutako informazioa idatziz eman beharko du, hogeita hamar eguneko epean gehienez ere.

BOST.- Nolanahi ere, Artezkaritza Kontseiluak hiru hilabetero Elkartearen aldagai sozioekonomiko nagusien berri emango die bazkideei, Kooperatibaren egoitzan hauen eskura jarriko duen dokumentu baten bidez.

14. ATALA.- INFORMAZIO-ESKUBIDEAREN MUGAK ETA BERMEAK

BAT.- Artezkaritza Kontseiluak, behar bezala arrazoituta, informazioa ukatu ahal izango du eskaera ausarkeriaz edo oztopatzeko asmoz egina denean edo informazio hori emateak Kooperatibaren bidezko interesak arrisku larrian jartzen dituenean. Hala ere, salbuespen hau ez da bidezkoa izango ukatutako informazioa Batzar Nagusiari eman behar denean, informazioaren eskaerak bertaratuen eta ordezkatuena botoen erdia baino gehiagoren adostasuna duenean.

BI.- Eskatzaileek Artezkaritza Kontseiluaren ezezkoari aurka egin ahal izango diote Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen (Euskadiko Kooperatibei buruzko Legea aurrerantzean) 49. atalean ezarritako prozedurari jarraiki, Estatutu hauetan aurreikusitako Kooperatibako organo aginpidedunaren aurrean barne-bidea agortu ondoren. Horrez gain, atal honen 2. azpiataleko suposizioen kasuan, Judiziamendu Zibileko Legearen 2.166. atalean aurreikusitako prozedurara jo ahal izango dute.

15. ATALA.- BAZKIDEAREN BORONDATEZKO BAJA

BAT.- Edozein bazkide joan ahal izango da Kooperatibatik bere borondatez, Artezkaritza Kontseiluari hiru hilabeteko aurretiaz idatziz jakinarazi ondoren, ezinbesteko kausaren bat dagoenean izan ezik.

BI.- Aurretiaz jakinarazteko epea betetzen ez duten bajak eta espreski itundutako gutxieneko iraupen-epeak errespetatzen ez dituzten bajak justifikatu gabeko bajatzat hartuko dira, Kooperatibako Artezkaritza Kontseiluak, kasuaren zirkunstantziak kontuan hartuta, aurkakoa erabakitzen duenean izan ezik. Eta hori guztia, bazkideari behartuta dagoen bezala Kooperatibako jarduerak eta zerbitzuak betetzea eta dagokion kalteordaina egitea exijitu ahal izatearen kaltetan izan gabe.

HIRU.- Halaber, bazkideak Kooperatibarekin lenian dauden jarduerak egiteko asmoa duenean, borondatezko baja justifikatu gabekotzat hartuko da.

LAU.- Kooperaribaren bategite, zatiketa edo transformazioa gertatzen denean, motaldaketa eta Elkartearen helburuaren funtsezko aldaketa dagoenean edota kapitale-rako derrigorrezko ekarpen berriak egiteko exijitzen denean, dagokion erabakiaren aurkako botoa eman duen bazkidearen baja justifikatutzat hartuko da.

Aurreko Bi eta Hiru azpiataletan barne hartu gabeko gainerako borondatezko bajak justifikatutzat hartuko dira.

16. ATALA.- BAZKIDEAREN DERRIGORREZKO BAJA

BAT.- Bazkide izateko exijitutako legezko baldintzak galtzea bazkideei derrigorrezko baja ernateko arrazoia izango da.

BI.- Derrigorrezko baja Artezkaritza Kontseiluak erabakiko du interesatuari entzun ondoren, ofizioz edota interesatuak berak edo beste edozein bazkidek eskatuta.

HIRU.- Artezkaritza Kontseiluaren erabakia betearazlea izango da Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazten denetik edo errekurtsioa epea igaro ondoren.

LAU.- Derrigorrezko baja justifikatutzat hartuko da bazkide izateko baldintzen galera bazkideak Kooperatibarekiko betebeharrak ez betetzeko edo bajaren bidez bidegabeko onura lortzeko borondatearen ondorioa ez denean.

BOST.- Artezkaritza Kontseiluak borondatezko nahiz derrigorrezko bajaren kalifikazio edo ondorioei buruz hartutako erabakiarekin ados ez dagoen bazkideak errekurtsioa egin ahal izango du. Horretarako, hurrengo ataleko Bi eta Lau azpiataletan ezarritakoa aplikatuko.

17. ATALA.- KANPORATZEA

BAT.- Bazkideak kanporatzeko erabakia Estatutueta tipifikatutako hutsegite arras larriagatik, soilik hartu ahal izango du Artezkaritza Kontseiluak horretara bideratutako espedientearen bidez eta interesatuari entzun ondoren.

BI.- Bazkideak kanporatzeari buruzko erabakiaren aurka errekurtsioa egin ahal izango du Batzar Nagusiaren aurrean, erabakia jakinarazi eta hogeita hamar eguneko epean.

Batzar Nagusiaren aurrean egindako errekurtsioa interesatuari entzun ondoren ebatzi beharko da.

HIRU.- Kanporatzeari buruzko erabakia betearazlea izango da Batzar Nagusiaren berrespena jakinarazten denetik edo Batzar Nagusiaren aurrean errekurtsioa egiteko epea igaro ondoren.

LAU.- Batzar Nagusiak berrespena eman ondoren, kanporatzeari buruzko erabakiari aurka egin ahal izango zaio jakinarazpenetik hasita bi hilabeteko epean, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen 39. atalean aipatutako bide prozesalaren bitartez.

18. ATALA.- BAZKIDEEN HUTSEGITEAK

BAT.- Bazkideen hutsegiteak, garrantzi, eragin edo asmoaren arabera arinak, larriak eta arras larriak izan daitezke.

BI.- Hutsegite arinak ondokoak dira:

A) Deialdia behar bezala jaso arren justifikatu gabe Batzar Nagusiaren bilkuretara ez joatea.

- B) Ohiko helbidea edo egoitza aldatu eta hiru hilabeteren buruan horren berri ez ematea.
- C) Estatutu hauei lehen aldiz egiten zaizkien eta hutsegite larriak edo arras larriak arautzen dituzten azpiataletan aurreikusita ez dauden arau-hausteak, Barne Araudian tipifikatuta daudenak izan ezik.

HIRU.- Hutsegite larriak ondokoak dira:

- A) Deialdia behar bezala jaso arren justifikatu gabe Batzar Nagusiaren bilkuretara ez joatea, horren aurretik azken hiru urteetan Kooperatiba Elkarteko organo horren bileretara ez joateagatik bazkideak bi hutsegite arinengatiko zigorra jaso duenean.
- B) Kooperatiba Elkarteko karguak betetzeko hautatuak izan ondoren kargu horiek arduraz ez betetzea.
- C) Estatutu hauetan aurreikusitako betebeharrak ekonomikoak betetzerakoan justifikatutako arrazoirik gabe behin eta berriz atzeratzea.
- D) Urtebete baino epe laburrago batean hutsegite arinak behin eta berriz egitea.

LAU.- Hutsegite arras larriak ondokoak dira:

- A) Kooperatibarekin lehian dauden jarduerak; kapitalerako ekarpenekin egindako iruzurra; datu garrantzitsuen ezkutaketa, eta Elkarteko administrari eta ordezkarietara adrekitasunik eza nabarmena, Kooperatibaren ospea edo interes materialak kaltetzen dituztenean.
- B) Kooperatibaren eta bere bazkide edo hirugarren batzuen arteko harremanetarako garrantzitsuak diren dokumentuak, sinadurak, zigiluak, markak edo antzeko datuak faltsifikatzea.
- C) Kooperatibaren interesak larriki kaltetzen dituzten sekretuak ezagutarazi edo zabaltzea.
- D) Artezkaritza Kontseiluaren, Zaintza Batzordearen edo hauetako edozein kideren funtzioak usurpatzea.
- E) Bazkide-izaera espekulazio-jarduerak edo legeen aurkako jarduerak garatzeko erabiltzea.
- F) Estatutu hauen 11 eta 12. ataletan transkribatutako betebeharrak edo eskubideak behin eta berriz edo larriki bete gabe uztea eta Kooperatibaren ospea, ondarea eta, oro har, bere helburua kaltetzeko moduan behin eta berriz jokatzeko hitzez nahiz egitez.
- G) Kooperatibako organoak biltzerakoan edo Kooperatibaren helburua garatzeko beharrezkoak diren lan, jarduera edo eragiketarako burutzerakoan beste bazkide batzuei edo Kooperatibako langileei (baldin badaude) hitzez edo egitez tratatu txarrak ematea.

H) Urtebete baino epe laburrago batean hutsegite arinak behin eta berriz egitea.

19. ATALA.- HUTSEGITEENGATIKO ZIGORRAK

BAT.- Hutsegite arinengatik:

Idatzizko ohartarazpena.

Botoa emateko eskubidea kentzea urtebeterainoko epe batez.

2.000 pezetarainoko diru-zigorra. Zenbateko hau urtero eguneratuko da aurreko urteko kontsumo-prezioen indizearen portzentaiazko gehikuntzarekin.

BI.- Hutsegite larriengatik.

Aurreko azpiataleko guztiak.

Eskubide sozial guztiak edo batzuk kentzea 2 urterainoko epe batez.

Kooperatibako organo kolegiatuetako kide gisa hautatua izateko gaitasungabetzea.

10.000 pezetarainoko diru-zigorra. Zenbateko hau urtero eguneratuko da aurreko urteko kontsumo-prezioen indizearen portzentaiazko gehikuntzarekin.

HIRU.- Hutsegite arras larriengatik:

Aurreko Bat eta Bi azpiataletako guztiak.

Eskubide sozial guztiak edo batzuk kentzea 3 urterainoko epe batez.

50.000 pezetarainoko diru-zigorra. Zenbateko hau urtero eguneratuko da aurreko urteko kontsumo-preziden indizearen portzentaiazko gehikuntzarekin.

Kanporatzea.

20. ATALA.- ZIGOR-PROZEDURA

BAT.- Bazkideak hutsegiteengatik zigortzeko, dagokion espedientea bideratuko da. Espediente hau bere dokumentu guztietan bi aletan beteko da eta horietako bat bazkide bakoitzaren espedientean artxibatuta geratuko da.

Kargu-orria Batzorde Instruktoareak formulatuko du. Batzorde hau hiru kidek osatuko dute eta kide hauek Artezkaritza Kontseiluak izendafuko ditu bertako kideen artean. Batzordeak bazkide erruztatuari hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta dagokion zigor-proposamena jakinaraziko dizkio idatziz. Bazkideak deskargua egin eta Artezkaritza Kontseiluari aurkeztu ahal izango dio eta honek behin-betiko kalifikazioa eta zigorra ezarriko ditu.

Hutsegite larri eta arras larrien kasuan, bazkide erruztatuak errekurtsua egin ahal izango du Batzar Nagusiaren aurrean. Batzar Nagusiaren erabakiak Kooperatibaren barne-bidea agortzen du baina interesatuak aurka egin ahal izango dio Euskadiko

Kooperatibei buruzko Legearen 39. atalean aurreikusitako izapide prozesalaren bitartez.

BI.- Epeak oro har Disziplina-espeditenteen fase bakoitzerako epeak (Estatutu hauen 17 atalak arautzen dituen kaboratzeari dagozkionak izan ezik) ondokoak izango dira. Epe hauek igaro ondoren artxibatuta geratuko dira.

A) Espedientea irekitzeko epea.

Hutsegiteei buruzko espedientea irèkitzeko epeak, bazkide erruztatuari jakinarazpena ematean amaitzen direnak, ondokoak izango dira, salaketa egin edo egintza ezagutzen denetik kontatzen hasita:

Hilabete bat hutsegite arintzat tipifikatutako kasuetan.

Bi hilabete hutsegite larritzat tipifikatutako kasuetan.

Hiru hilabete hutsegite arras larritzat tipifikatutako kasuetan.

B) Hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta zigor-proposamena jakinarazteko epea.

Epe hau hilabete batekoa izango da Artezkaritza Kontseiluak hutsegiteei buruzko espedientea irekitzeko edo zigor-prozedurari hasiera emateko erabakia hartzen duenetik kontatzen hasita.

C) Deskargua egiteko epea.

Bazkide erruztatuak deskargua egin ahal izango du Artezkaritza Kontseiluaren aurrean, hilabete bateko epean hutsegitearen behin-behineko kalifikazioa eta zigor-proposaznena jakinarazten direlletik kontatzen hasita.

D) Dagokion kalifikazioa eta zigorra ezartzeko epea,

Artezkaritza Kontseiluak bazkide erruztatuak deskargua egiten duenetik edo deskargua egin ezean egiteko epea amaitzen denetik hilabete bateko epean hartu beharko du kalifikazioari eta zigorrari buruzko erabakia.

E) Errekursoa egiteko epea.

Aurreikusitako errekurtsio bakoitza aurkezteko epea 30 lanegunekoak izango da, zigorrak jakinarazten direnetik kontatzen hasita.

HIRU.- Zigor guztiak betearazleak izango dira errekurtsioa egiteko epea bazkide espeditentatuak eskubide hori erabili gabe igaro eta hurrengo egunetik edo epai apelaezina hartu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

III. ATALBURUA

KOOPERATIBA ELKARTEAREN ORGANOAK

21. ATALA.- BATZARRA. KONTZEPTUA ETA AGINPIDEAK

BAT.- Kooperatibaren Batzar Nagusia, bazkideek Batzar horren aginpideari dagozkion gaiak eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko eratzen duten bilera da.

BI.- Batzar Nagusiaren erabakiak bazkide guztiek bete beharko dituzte.

HIRU.- Batzar Nagusiari soilik dagokio ondoko erabakiak hartzea:

- A) Isilpeko botazio bidez Artezkiritza Kontseiluko, Zaintza Batzordeko kideak eta likidatzaileak izendatzea eta izendapen horiek baliogabetzea eta horien aurkako erantzukizun-egintza egikaritzea.
- B) Kontu-ikuskariak izendatzea eta izendapen horiek baliogabetzea (justifikatutako arrazoiren bat dagoenean soilik).
- C) Kooperatiba Elkartearen kudeaketa aztertzea eta urteko kontuak, soberakinen banaketa eta galeren egoztearen onartzea.
- D) Derrigorrezko ekarpen berriak, kapitalerako ekarpenek sortuko duten interesa eta sarrera-kuotak edo aldizkakoak ezartzea.
- E) Obligazioak, partaidetza-tituluak edo partaidetza bereziak jaulkitzea.
- F) Kooperatibaren Estatutuak aldatzea.
- G) Bigarren mailako kooperatibak, kooperatiba-korporazioak eta antzeko erakundeak eratzea, bai eta hauekin bat egitea eta bereiztea ere.
- H) Elkartea batu, zatitu, transformatu eta desegitea.
- I) Estatutuen arabera Kooperatibaren ekonomia-, antolamendu- edo funtzioegituraren funtsezko aldaketa dakarten erabaki guztiak hartzea.
- J) Kooperatibaren Barne Araudia onartu edo aldatzea.
- K) Euskadiko Kooperatibei buruzko Legeak ezartzen dituen gainerako guztiak.

LAU.- Batzar Nagusiak Kooperatibaren intereseko edozein gairi buruz eztabaidatu ahal izango du baina derrigorrezko erabakiak Kooperatibako beste organo baten aginpide eskusibokoak ez diren gaietan soilik hartu ahal izango ditu.

BOST.- Legezko arauari jarraiki Batzar Nagusiaren erabakia aginduzkoa den egintzetan, Batzar Nagusiaren aginpidea delegaezina da, kooperatiba-integrazio prozesuetarako aurreikusitako kasuetan izan ezik, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legean aurreikusi bezala.

22. ATALA.- BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

BAT.- Ohiko Batzar Nagusirako deialdia Artezkaritza Kontseiluak egingo du urtean behin, Kooperatibaren ekitaldia itxi eta hurrengo sei hilabeteen barruan. Ondoko helburuak izango ditu:

Kooperatiba Elkartearen kudeaketa aztertzea.

Bidezkoa izanez gero, urteko onartzea.

Soberakin edo galerer banaketa erabakitzea.

Gai-zerrendan barne hartutako gainerako gai guztiak aztertzea. Batzarraren aginpi-dearen berezko beste edozein gai aztertzea.

BI.- Aurreko zenbakian aipatutakoaz bestelako Batzar Nagusiak ezohikoak izango dira eta deialdia Artezkaritza Kontseiluaren ekimenez, Zaintza Batzordeak eskatuta edo gutxienez boto guztien %20 ordezkaturako duten bazkideek eskatuta egingo da Eskaera Artezkaritza Kontseiluarentzako errekerimendu fede-emaile baten bidez egingo da eta errekerimendu honek eztabaidatu beharreko gai eta proposamenak bilduko dituen gai-zerrenda barne hartuko du.

Ezohiko Batzar Nagusian gaizerrendan barne hartutako gai guztiak aztertu ahal izango dira, Ohiko Batzarrari dagozkionak barne, hau bere garaian egin ezean.

HIRU.- Ohiko Batzar Nagusirako deialdia legezko epearen barruan egiten ez bada, edozein bazkidek eskatuta egin ahal izango da, Horretarako, bazkideak errekerimeridu fede-emailea egingo dio Artezkaritza Kontseiluari honek deialdia egin dezan. Kontseiluak hamabost eguneko epean egiten ez badu –errekerimendua jasotzen denetik kontatzen hasita–, hazkideak Elkartearen egoitzako Lehen Instantsiako Epaileari eskatu ahal izango dio eta honek Batzarrerako deialdia egin eta Batzarra nork zuzenduko duen esan beharko du. Batzar Nagusi honek, deialdia epez kanpo eginda ere, ez du bere ohiko-izaera galduko.

LAU.- Ezohiko Batzar Nagusirako deialdia hogeita hamar eguneko epean –eskabidea jasotzen denetik kontatzen hasita– egiten ez bada, epaile bidezko delaldia eskatu ahal izango da aurreko zenbakian aurreikusitakoari jarraiki.

BOST.- Batzar Nagusirako deialdia Elkartearen egoitzan eta Kooperatibak bere jarduera garatzen dueneko gainerako zentroetan jendaurrean jarritako iragarki baten bidez egingo da.

Kooperatibak 500 bazkide baino gehiago baditu, deialdia Gipuzkoako zahalkunde handiko bi egunkaritan iragarriko da.

SEI.- Deialdia gutxienez 10 eguneko eta gehienez 60 eguneko aurretiaz emango da argitara, egingo den egunetik kontatzen hasita.

ZAZPI.- Deialdian, gutxienez, lehen eta bigarren deialdiko bileraren eguna, ordua eta lekua adieraziko dira. Halaber, gai-zerrenda xehetasun eta zehaztasunez adieraziko da.

ZORTZI.- Boto guztien %10 baino gehiago ordezkatzan duten bazkideek, Artezkaritza Kontseiluari zuzendutako idatzian, gai-zerrendan gai bat edo gehiago sartzea eskatu ahal izango dute deialdiaren iragarpena egin eta hurrengo bost egunen barruan. Artezkaritza Kontseiluak gai horiek barne hartu beharko ditu eta, horretarako, gai-zerrenda berria argitaratuko du legez exijitutako publizitatearekin eta gutxienez 4 eguneko aurretiaz, Batzarraren agunetik kontatzen hasita. Batzarra ezingo da ezein kasutan atzeratu.

BEDERATZI.- Atal honen aurreko azpiataletan xedatutakoa kontuan hartuta ere, deialdirik gabeko bilkura egin ahal izango da, befieren bazkide guztiak bertaratuta edo ordezkaturata egonik aho batez Batzar Nagusi unibertsala eratzea erabakitzen badute. Bazkide guztiek gai-zerrenda eta bertaratuen zerrenda onartu eta sinatuko dute eta ez da beharrezkoa izango ondoren bazkide guztiak bertan geratzea.

23. ATALA.- BATZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA

BAT.- Kooperatibaren Batzar Nagusia Elkartearen egoitza dagoen herrian egingo da.

BI.- Batzar Nagusia lehen deialdian balio osoz eratuta geratzeko, botoen gehiengoak duten bazkideek bertaratuta edo ordezkaturata egon beharko dute, eta bigarren deialdian eratuta geratzeko berriz, gutxienez botoen %10 duten bazkideek.

HIRU.- Batzarrera joateko eskubidea, Batzar Nagusirako deialdia egitea erabakitzen den egunean bazkide-izaera duten guztiek izango dute, une horretan zigortuta daudenek izan ezik.

LAU.- Bazkideek beren ordezkaritza beste bazkide batzuei eman ahal izango diete Batzar bakoitzerako herezia izango den idatzi baten bidez.

Batzar Unibertsalaren kasuan, ordezkaritza egiaztatzen duen idatziak aurreikusitako gai-zerrenda bildu beharko du.

24. ATALA.- BOTO-ESKUBIDEA

BAT.- Bazkide bakoitzak boto bana izango du.

BI.- Bazkide laguntzaileek eta ez-aktiboek eduki dezaketen botoen erdiaren muga errespetatu egingo da.

HIRU.- Bazkideak ezin izango du boto-eskubidea erabili interes-gatazkako ondoko kasuetan:

- A) Hartu beharreko erabakia zuzenean edo berari bakarrik dagokionean, espedienta-tutako gehiengoaren osagai denean izan ezik.
- B) Kooperatibak egikaritutako erantzukizun-ekintza baten subjektu denean.

25. ATALA.- GEHIENGOAN OINARRITUTAKO ARAUBIDEA

BAT.- Batzar Nagusiaren erabakiak bertaratuek eta ordezkatuak balio osoz emandako botoen gehiengo soiluz hartuko dira, indarrean dagoen legeriak edo Estatutu hauek gehiengo indartua ezartzen dutenean izan ezik. Horretarako, boto zuriak eta abstentzioak ez dira kontatuko.

BI.- Nolanahi ere, Elkarte desegin, transformatu, batu edo zatitzeari buruzko erabaki zehatz edo inplizituak, hezkuntza-titulartasuna lagatzea dakarren edozein erabakik eta Estatutuen atal honen aldaketak, bertaratuek eta ordezkatuak balio osoz ematen dituzten botoen bi herenen gehiengo indartua eskatuko dute.

HIRU.- Artezkaritza Kontseiluko kideak kargugabetzeko erabakiak, gai-zerrendan bilduta ez dagoenean, bertaratuek eta ordezkatuak balio osoz emandako botoen hi herenen aldeko botoa eskatuko du.

26. ATALA.- BATZAR NAGUSIAREN AKTA

BAT.- Batzar Nagusiaren erabakiak aktan jasoko dira. Akta hau Idazkariak idatzi eta akta-liburuan transkribatuko du ondoko zirkunstantziak adieraziz:

- A) Batzarraren data eta lekua.
- B) Dejaldia egin deneko data eta modua.
- C) Deialdiaren testu osoa.
- D) Bertaratutako bazkide-kopurua, beren izenean edo besteren baten ordezkaritzan etorri direnak adierazita.
- E) Batzarra lehen ala bigarrer deialdian egiten den.
- F) Eztabaidatutako gaien eta eskatu bezala aktan jaso diren iritzien laburpena.
- G) Hartutako erabakien edukia.

H) Botazioen emaitzak, erabaki bakoitza zein gehiengo-motarekin hartu den adierazita. Aurkako botoa eman duenak eskatzen badu, erabakiekiko aurkakotasun hori jaso beharko da aktan.

I) Aktaren onarpena, bilera amaitu ondoren onartzen bada.

BI.- Bertaratuen zerrenda aktaren hasierari edo Lehendakariaren ontzat emanarekin Idazkariak sinatutako eranskin baten bidez aktari eraritsita jaso beharko da.

HIRU.- Akta Batzarrak berak onartu ahal izango du Batzarra egin ondoren. Horrela ez bada, harnabost eguneko epean Lehendakariak eta Batzarrak izendatutako bi bazkidek onartuko dute. Akta hiru hauek eta Idazkariak sinatuko dute.

LAU.- Batzarrera joaten den edonork aktaren testu osoaren edo hartutako erabakien ziurtagiriak eskatzeko eskubidea izango du. Ziurtagiri hauek, une horretan Idazkari denak luzatuko ditu Lehendakariaren ontzat emanarekin.

BOST.- Erabakiek hartzen diren unetik izango dituzte ondorioak.

SEI.- Inskriba daitezkeen erabakiak Kooperatiben Erroldan aurkeztu beharko dira akta onartu eta hurrengo 30 egunen barruan.

27. ATALA.- BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIEN AURKAPENA

BAT.- Legearen eta Estatutuen aurkakoak diren edo bazkide baten edo gehiagoren edota hirugarren batzuen onurarako Kooperatibaren interesak kaltetzen dituzten Batzar Nagusiaren erabakiei aurka egin ahal izango zaie.

BI.- Legearen aurkako erabakiak baliogabeak izango dira. Aurreko zenbakian aipatutako erabakiak ere baliogabetu ahal izango dira.

HIRU.- Ondoriorik gabe utzitako edo beste batek balio osoz ordezkaturako erabaki bati aurka egitea ez da bidezkoa izango.

LAU.- Baliogabetutako erabakiei ondokoek egin ahal izango diete aurka:

- A) Bazkide guztiek.
- B) Artezkaritza Kontseiluko kideek.
- C) Zaintza Batzordeko kideek.
- D) Legezko interesa duen beste edozeinek.

Erabakiei aurka egiteko urtebeteko epea izango da, Beren ondorio edo edukiagatik ordena publikoaren aurkakoak diren erabakien kasuan izan ezik.

BOST.- Baliogabetu daitezkeen erabakiei ondokoek egin ahal izango diete aurka:

- A) Batzar Nagusiaren aktan erabakiarekiko aurkakotasuna jasoarazten duten bazkide bertaratuek.

B) Bertaratu ez direnek eta bidezko arrazoirik gabe botoa emateko aukerarik gabe geratu direnek.

C) Artezkaritza Kuntseiluko kideek.

D) Zaintza Batzordeko kideek.

Aurka egiteko 40 eguneko epea izango da.

SEI.- Atal honetan aurreikusitako iraungitze-epeak erabakia hartzen den egunetik konputatuko dira eta; erabakia inskribatzekoa bada, Kooperatiben Erroldan inskribatzen den egunetik.

ZAZPI.- Aurkapen-egintzak, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen 39-7 atalean xedatutakoari jarraiki trarnitatuko dira.

ZORTZI.- Aurkapen-egintza baiesten duen epaiak bazkide guztiengan izango ditu eraginak.

28. ATALA.- KOOPERATIBAREN EKONOMIA-, ANTOLAMENDU- EDO FUNTZIO-EGITURAREN FUNTSEZKO ALDAKETA

Kooperatibaren ekonomia-, antolamendu- edo funtzio-egituraren funtsezko aldaketatzat ondoko kasuak hartuko dira:

A) Kooperatiba irakaskuntza-sare publikoan sartzea.

B) Kooperatibaren aktibo eta pasibo guztiak besterentzea.

C) Kooperatiba elkarte zibil edo merkataritza-elkarte bihurtzea.

D) Kooperatiba Elkartearen helburua aldatzea, Kooperatiba sortu zuten helburu eta jarduerak ez errespetatzea eta ez zaintea dakarrenean.

E) Kooperatiba motaz aldatzea.

29. ATALA.- ARTEZKARITZA KONTSEILUA: IZAERA ETA AGINPIDEAK

BAT.- Artezkaritza Kontseilua Kooperatibaren kudeaketa eta ordezkaritza daraman organo bakarra da eta, horrez gain, Legeak edo Estatutu hauek Kooperatibako beste organo batzuentzat espreski erreserbatzen ez dituen gainerako ahalmen guztiak dagozkie.

BI.- Artezkaritza Kontseiluaren aginpideak ondoko berariazko ahalmenak dira:

A) Bazkideen onarpen eta bajari lotutako gai guztiei buruzko erabakiak hartzea, Estatutu hauetan aurreikusitakoari lotuta,

B) Kooperatiba ordezkaritza-ahalmenaz eta erantzukizun osoz ordezkatzeta edozein egintza eta kontratutan, parte hartzen dueneko erakundeen organoetan bereziki.

- C) Barne Araudian ezarritako prozeduraren arabera, Zuzendaria izendatzea, bere ahalmenak, eginbeharrak eta ordainsariak finkatzea eta, hala badagokio, bere aurkako erantzukizun-egintzak egikaritzea.
- D) Pertsonalaren baldintza ekonomikoak ituntzea eta pertsonalaren lankidetzaren baldintzak eta moduak finkatzea.
- E) Estatutuekiko eskubide eta betebeharrei eta bazkideen lan- eta disziplina-araubideari lotutako gaiei buruz erabakitzea.
- F) Kooperatibaren norabidea antolatu, zuzendu eta ikuskatzea eta Batzar Nagusiari epe luzerako urteko kudeaketa-plan estrategikoak eta Kooperatibaren politika eta estrategia orokorreari buruzko proposamenak aurkeztea, Artezkaritza Kontseiluak onartu ondoren.
- G) Kontseilarien uko egiteei, postu hutsen ordezkapenari eta, oro har, organoaren barne-arautze funtzionalari buruzko bidezko erabakiak hartzea eta erabakiak balio gabetzeko bidezkoak edo bere aginpidekoak diren egintzak egikaritzea.
- H) Batzar Nagusiari Kooperatibaren Estatutuak edo Barne Araudia aldatzeko bidezkotzat hartzen dituen proposamenak egitea.
- I) Estatutu eta erregelamenduetako printzipioak zuzen aplikatzeko edo Batzarraren erabakiak betetzeko beharrezkoak diren araudi funtzionalak onartzea.
- J) Kooperatiba Elkartearen helbururako komenigarriak edo beharrezkoak diren egintzak eta kontratuak egitea, ondasun higiezinaren erosketa edo besterentzeari eta eskubide erreal, hipoteka-eskubide eta errentarnendu-eskubide bereziaren eraketari buruzkoak salbuetsi gabe, eta Estatutu hauek Kooperatibari baimendutako negozio eta eragiketa guztiak ebaztea.
- K) Kooperatibarentzat komenigarriak izan daitezkeen eta Batzar Nagusiarentzat erreserbatuta ez dauden kreditu, mailegu edo sinadura-bermeko eragiketak erabakitzea.
- L) Erakunde publiko eta pribatuen aurrean abalak ematea eta eskubidez onartutako edozein titulu, zor publiko edo balore higigarri edo higiezin erosi, saldu, izenpetu eta gordailatzea, bai eta bidezkotzat hartzen duen moduan afektatzea ere.
- M) Ekarpenak harpidetzeko eta bonu eta obligazioak jaulkitzeko beharrezkoa dena finkatzea Batzar Nagusiari erabakitakoari jarraiki.
- N) Fondo erabilgarrien inbertsio zehatza finkatzea, aurrekontuak egitea, gastuak baimentzea eta Kooperatibako ahaldun eta ordezkariak izendatzea kasu bakoitzean emian nahi dituen ahalmenekin.
- O) Ohiko Batzar Nagusiari urteko kontuak urtero aurkeztea eta soberakin garbien banaketa edo, hala badagokio, galaren egoztearen proposatzea.

- P) Batzar Nagusietarako deialdiak egitea, hauen prozesamenduan sor daitezkeen arazoak ebaztea eta bere erabakiak gauzatzea.
- Q) Epaitegi eta auzitegi arrunt edo berezien eta Estatuko, Lurralde Administrazio Autonomiadunetako, Probintziako edo Udaleko bulego, agintari, korporazio edo organismoen aurrean Kooperatibari dagozkion eskubide edo egintzak erabiltzeari eta errekurtsio arrunt edo bereziak jartzeari buruz komenigarritzat hartzen duena erabakitzea. Horretarako, Kooperatibaren ordezkari eta defentsa eramango duten ordezkariak, prokuradoreak edo abokatuak izendatuko ditu eta hauei, behar den moduan, bidezko ahalmenak emango dizkie adiskidetze, espediente, auzi, erreklarnazio, errekurtsio edo bestelako jarduketetan eta edozein prozedura-egoeratan ados jartzeko edo atzera egiteko, prozeduraren geldiaraztea eskatzeko eta beharrezkoa den guztirako, bai eta judizialki zabaltasun osoz amore emateko ere.
- R) Kooperatibaren fonda eta ondasunak erabili, erreklamatu, jaso eta kobratzea (partikularrengandik nahiz bulego publikoetatik), Kutxa orokorrean gordailuak eratu edo aterata eta Elkartearen interesentzat komenigarria den lekuan ezarrita; Bankuetan kontu korronteak irekitzea (eskudiru edo baloreetan) eta, oro har, entitate nazional edo atzerrikoekin (bai eta Banco de España-rekin ere) edozein banku-eragiketa egitea; Kooperatibarenak izanik aldi berean erantzukizuna dutenen esku dauden fondo eta ondasunak erabiltzea; eta ganbio-letrak libratu, endosatu, abalatu, onartu, negoziatu eta ordaintzea.
- S) Batzar Nagusiari Kooperatibaren ordainketa-etendura, porrot eta desegiteari buruzko espedienteak proposatzea eta prozesu hauetan bere aginpidekoak diren fase guztiak betetzea.
- T) Estatutu hauen interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzea eta egiten den lehen Batzar Nagusiari jakinaraztea.
- U) Aurreko zenbakietan zerrendatutako ahalmenak gauzatzeko (Batzar Nagusiari kontuak eman eta balantzeak aurkeztekoak izan ezik) edozein pertsonari –bai eta bazkide ez denari ere– ahalorde orokor eta bereziak eman eta baliogabetzea, bai eta kopiai ordezkatu eta lortzeko ahalmenak ere.
- V) Estatutu hauetan bereziki adierazitakoak.

HIRU.- Artezkaritza Kontseiluaren ahalmenen zerrenda hau enuntziatiboa besterik ez da eta Legeak Kooperatibako beste organoen aginpide eksklusiborako bereziki erreserbatu gabekoan ez ditu bere ahalmenak mugatzen.

30. ATALA.- ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN OSAERA. AUKERAKETA, KARGU-UZTE ETA POSTU HUTSAK

BAT.- Artezkaritza Kontseilua bazkideak diren 11 kidek osatuko dute eta gutxienez 8 bazkide erabiltzaile izango dira. Kide erabiltzaile hauetariko hiruk Lehendakari,

Lehendakariorde eta Idazkari karguak beteko dituzte, hauek Artezkaritza Kontseilua berak aukeratuko dituelarik.

BI.- Artezkaritza Kontseiluko kideak Batzar Nagusiak aukeratuko ditu isilpeko botoz bota-zioan eta balio osoz emandako boto-kopururik handienarekin.

Agintaldiaren iraupena 4 urtekoa izango da eta berriztapena partziala izango da, hau da, bi urtero erdiak berrituko dira. Gainera, berriz ere aukeratu ahal izango dituzte.

Agintaldiaren epea igaro ondoren, administratzaileek beren karguetan jarraituko dute Batzar Nagusiak aukeratutako kide berriek kargua onartzen duten arte.

HIRU.- A) Ondokoak ezingo dira administratzaile izan:

- a) Porrot egindakoak eta konkurtsatu birgaitu gabeak, adin txikikoak eta ezinduak, kargu publikoak betetzeko gaitasungabetzea dakarten zigorretara kondenatuak, Kooperatiba Elkartearen lege edo xedapenen ez-betetze larriengatik kondenatuak eta beren karguagatik irabazizko jarduera ekonomikorik burutu ezin dutenak.
- b) Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionariak eta pertsonala, beren kargura Kooperatibaren berezko jardueri lotutako funtzioak dituztenean.
- c) Norberaren edo besteen kontura Kooperatibaren jarduerekin lehian egon daitezkeen jarduerak egiten dituztenak edo, nolana ere, Kooperatibaren interesei kontrajarritako interesak dituztenak.
- d) Zaintza Batzordeko kideak eta zuzendari-gerenteak.
- e) Bazkide ez-aktiboak
- f) Estatutuetan aurreikusitako kasuetan sartuta daudenak.

B) Atal honetan adierazitako edozein ezintasun edo debekutan sartuta dagoen administratzaileak dimititu egin beharko du berehala. Dena den, Zaintza Batzordeak edo, halakorik ezean, Artezkaritza Kontseiluak bere kargua aldi baterako uztera behartu ahal izango du hurrengo Batzar Nagusia egin arte. Batzar Nagusiak, kautelazko kargu-uztea gertatzen bada edo edozein bazkidek eskatzen badu, administratzailea kargutik kenduko du, c) azpialaiean aurreikusitako kasuan izan ezik. Kasu honetan, Batzar Nagusiak bere kabuz erabakiko du administrazioa kargutik kentzea edo jarraitzea.

LAU.- Batzar Nagusiak edozein unetan erabaki ahal izango du Artezkaritza Kontseiluko kide batzuen edo guztien kargugabetzea, gai-zerrendan jasota egon behar izan gabe. Kasu horretan, bilkura horretan bertan aukeratuko dira kontseilari berriak.

BOST.- Artezkaritza Kontseiluko kideen izendapenak onarperaren unetik izango du eragina eta Kooperatiben Erroldan inskribatzeko aurkeztuko da onarpenaren hurrengo 30 egunen barruan.

Artezkaritza Kontseiluko kideen edozein arrazoiengatik kargu-uzteak, Kooperatiben Erroldan inskribatzen den egunetik aurrera izango ditu eraginak hirugarrenen aurrean.

31. ATALA.- ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN FUNTZIONAMENDUA

BAT.- Artezkaritza Kontseiluak, eskola-ekitaldi bakoitzeko lehen bilkuran (irailekoan alegia), ekitaldi horretako bilkuren egutegia erabaki eta onartuko du. Gutxienez hila-betero behin bildu beharko du abuztuan izan ezik eta, betiere, deialdia Lehendakariak bere ekimenaz edo gutxienez kideen heren batek eskatuta egiten badu (bi hilabetero behin gutxienez). Bileretan bere aginpideko gai guztiak aztertu eta erabaki ahal izango dira.

BI.- Artezkaritza Kontseiluaren bileretarako deialdiak Lehendakariak egingo ditu kide guztiei bi eguneko aurretiaz zuzendutako idatzi baten bidez.

HIRU.- Artezkaritza Kontseilua balio osoz eratuta geratuko da bilerara kideen erdiak baino gehiago joaten direnean. Kontseiluko bileretarako asistentzia pertsonaia izango da eta erabakiak bertaratutako administratzaileen gehiengo soilez hartuko dira, Legeak edo Estatutuek gehiengo koalifikatua xedatzen dutenean izan ezik. Lehendakariaren botoak berdinketak ebatziko ditu.

LAU.- Kontseiluaren erabakiak akta-liburu batean jasoko dira. Lehendakariak eta Idazkariak sinatutako bilerako akta eztabaidak jasoko ditu laburututa, bai eta erabakien testua eta botazioen emaitzak ere.

BOST.- Artezkaritza Kontseiluak Batzorde Betearazle bat edo Kontseilari Ordezkeri bat izendatu ahal izango du bertako kideen artean. Horretarako beharrezkoa izango da kideen bi herenen aldeko botoa izango duen erabakia hartzea eta Notariaren aurrean formalizatzea, Kooperatiben Erroldan inskribatu arte eraginik izango ez badu ere.

Batzarrari kontuak ematea eta balantzeak aurkeztea eta Batzarrak Artezkaritza Kontseiluan ematen dizkion ahalmenak ezingo dira inoiz ordezkatu, Batzarrak espreski baimentzen duenean izan ezik.

32. ATALA.- ARTEZKARITZA KONTSEILUARI BURUZKO XEDAPENAK

BAT.- Artezkaritza Kontseiluko Lehendakariaren ahalinenak:

- A) Artezkaritza Kontseiluaren izenean, Kooperatiba ordezkatzea edozein arazotan, baita Kontseilu horren eta Batzar Nagusiaren bileretan buru izatea ere.
- B) Ahalmenak ematea eta dokumentu publiko nahiz pribatuak sinatzea, Batzar Nagusiak edo Artezkaritza Kontseiluak hartutako erabakiak betetzearren.
- C) Akordioak hartzerakoan Artezkaritza Kontseiluan gertatzen diren enpateak bere botoz erabakitzea.

D) Larrialdiko erabakiak hartzea, hauen berri Artekarrizta Kontseiluak egiten duen lehen bileran emanez.

E) Egiten diren ordainketak bere siriaduraz baimentzea.

BI.- Idazkariaren egitekoak

A) Espedienteak egin eta behar bezala tramitatzea.

B) Gutunak eta dokumentuak sinatzea, Lehendakariari ez badagokio behintzat.

C) Batzar Nagusietarako eta Artekarrizta Kontseilurako deiak egitea bidaltzea.

D) Aurreko organo horien bileretako aktak egitea.

E) Kooperatibaren artxibategi, erregistro-liburu, akta-liburu eta ziguilaren gordailuzain izatea.

F) Kooperatibaren liburu eta dokumentuei buruzko ziurtagiriak luzatzea, lehendakariaren oniritziaz

33. ATALA.- ARTEKARRITZA KONTSEILUKO KIDEEEN ERANTZUKIZUNA

BAT.- Artekarrizta Kontseiluko kideek ez dute ordainsari berezirik jasoko kargua betetzeagatik. Izatekotan, funtzioak sortzen dizkien gastuak ordainduko zaizkie.

BI.- Artekarrizta Kontseiluko kideek ordezkari zintzo eta kudeatzaile txukun bati dagokion prestasunarekin beteko dituzte karguak eta Legearen edo Estatutuen aurka edo behar adinako prestasunik gabe egindako egintzengatik eragindako kalteei erantzun beharko diete. Izaera konfidentzialeko datuak isilpean gorde beharko dituzte, bai eta funtzioak utzi ondoren ere.

Egintza kaltegarria egin edo erabaki kaltegarria hartu duen organako kide guztiak izango dira solidarioki erantzule, egintza egin edo erabakia hartu gabe halakorik zegoenik ez zekitela edo, jakinda ere, kaltea saihesteko ahalegina egin dutela edo espreski aurkako jarrera erakutsi dutela frogatzen dutenak izan ezik.

Egintza edo erabaki kaltegarria Batzar Nagusiak onartu, baimendu edo berretsi izanak ez du erarotzukizunaz salbuetsiko.

HIRU.- Artekarrizta Kontseiluko kideen aurkako erantzukizun-egintza Kooperatibak egikaritu ahal izango du Balzar Nagusiak aldez aurretik erabaki onderen eta gehiengo soilez, gai-zerrendan bilduta ez badago ere. Edozein unetan Batzar Nagusiak amore erlan edo uko egin ahal izango dio egintza egikaritzeari. Batzar Nagusiak erantzukizun-egintza sustatzeko erabakiak, afektatutako kontseilarien kargugabetze automatikoa ekarriko du.

Kooperatibak dagokion erabakia hartu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan erantzukizun-egintza hasten ez badu, edozein bazkidek egin ahal izango du.

LAU.- Erantzukizuna sortu duten ekintzak gertatzen direnetik edo ezagutzen direnetik bi urtera preskribituko du egintzak.

BOST.- Aurreko azpiataletan xedatutakoa kontuan hartuta ere, Artezkaritza Kontseiluaren ekintzengatik interesak zuzenean kaltetuta dituzten bazkideei dagozkien egintza indibidualak saibuetsita geratzen dira.

34. ATALA.- ERABAKIEN AURKAPENA

BAT.- Legearen eta Estatutuen aurkakoak diren edo bazkide baten edo gehiagoren edota hirugarren batzuen onurarako Kooperatibaren interesak kaltetzen dituzten Artezkaritza Kontseiluaren edo, hala badagokio, Batzorde Betearaziearen erabakiei aurka egin ahal izango zaie.

Legearen aurkako erabakiak baliogabeak izango dira. Arestian aipatutako erabakiak ere baliogabetu ahal izango dira.

Ondoriorik gabe utzitako edo beste batek balio osoz ordezkaturako erabaki bati aurka egitea ez da bidezkoa izango.

BI.- Baliogabetutako erabakiei aurka egiteko egintzak ondokoek egikaritu ahal izango dituzte:

- A) Bazkide guztiek, 60 eguneko epean erabakiaren berri dutenetik eta, betiere, erabakia hartu denetik urtebete igaro ez bada.
- B) Artezkaritza Kontseliuko kideek, 60 eguneko epean erabakia hartzen denetik.
- C) Zaintza Batzordeak, aurreko epe berean.

HIRU.- Baliogabetu daitezkeen erabakiei aurka egiteko egintzak ondokoek gauzatu ahal izango dituzte:

- A) Kooperatiba Elkarteko botoen %10 ordezkatzeko duten bazkideek, BI A) azpiatalean aurreikusitako epean.
- B) Artezkaritza Kontseiluko kideek, BI B) azpiatalean aurreikusitako epean.
- C) Zaintza Batzordeak, aurreko epe berean.

LAU.- Aurkapenak aurreikusitako ondorioak sortuko ditu eta Batzar Nagusiaren erabakiei aurka egiteko 27. atalaren zazpi zenbakian ezarritakoari jarraiki tramitatuko da.

35. ATALA.- ZUZENDARITZA, IZENDAPENA ETA KARGU-UZTEA

BAT.- Zuzendaritza Artezkaritza Kontseiluak izendatuko du Barne Araudian ezarritako prozeduran jarraiki, eta bere funtzioa pertsona bakar batek edo talde batek bete ahal izango du. Bere aginpidea Artezkaritza Kontseiluak ematen dizkion ahalmen eta

ahalordeetara mugatuko da eta honen etengabeko eta zuzeneko kontrolpean egongo da.

BI.- Zuzendaritzaren izendapen, ahalordetze eta kargu-uztea, arrazoia edozein izanik ere, Kooperatiben Erroldan inskribatuko da.

HIRU.- Artezkaritza Kontseiluak Zuzendariaren kargu-uztea itundutako epea arraitu aurretik erabakitzen duenean, egiten den lehen Batzar Nagusiari kargu-uztearen eta horretarako arrazoien berri eman beharko dio.

LAU.- Administratzaile eta Zuzendari karguak bateraezinak dira. Zuzendariari Artezkaritza Kontseiluko kideentzat ezarritako bateraezintasunak aplikatuko zaizkio.

36. ATALA.- ZUZENDARIAREN EGINBEHAR ETA ERANTZUKIZUNAK

BAT.- Zuzendariak bere karguari datxezkion eta Artezkaritza Kontseiluak ezarritako jarduketa-norabide orokorretatik eratorritako eginbeharrak izango ditu. Hiru hilabetero gutxienez, Kooperatibaren irakaskuntza-, gizarte- eta ekonomia-egoerari buruzko txosten bat aurkeztuko dio Kontseiluari. Hori guztia Artezkaritza Kontseiluaren aurrean Kudeaketa Planari buruz egin beharreko hilabeteko deskarguaren kaltetan izan gabe.

BI.- Kooperatibaren ekitaldia itxi eta hurrengo hiru hilabeteen barruan Zuzendariak erakundearen kudeaketari eta urteko kontuei buruzko txosten bat aurkeztuko dio Artezkaritza Kontseiluari, aurrerago Batzar Nagusiak azter dezan.

Epe berean, Zaintza Batzordeari dokumendu horien kopiak bidaliku zaizkio.

HIRU.- Zuzendariak bere iritziz Artezkaritza Kontseiluaren deialdia eskatzen duen edo garrantzitsua izateagatik Lehendakariak ezagutu behar duen edozein gairen berri emango dio honi denborarik galdu gabe.

LAU.- Zuzendariari Artezkaritza Kontseiluentzat ezarritako erantzukizun-arauak aplikatu ahal izango zaizkio. Dena dela, erantzukizun-egintza Artezkaritza Kontseiluak berak egikaritu ahal izango du kontseilarien bi herenek gutxienez alde aurretik horrela erabakitzen badute.

37. ATALA.- ZAINZA BATZORDEA

BAT.- Zaintza Batzordea hiru kidek eta ordezkoko batek osatuko dute. Hauek Batzar Nagusiak aukeratuko ditu isilpeko botazioan hiru eskola-ekitaldiko aldi baterako eta berrautatu ahal izango dira. Batzordeak berak izendatuko du Lehendakari-Idazkaria.

BI.- Zaintza Batzordeko kide guztiek bazkide izan beharko dute.

HIRU.- Batzar Nagusiak Zaintza Batzordeko kideak baliogabetu ahai izango ditu isilpeko botazioan eta balio osoz emandako botoen gehiengoarekin.

LAU.- Zaintza Batzordeko kideak Estatutu hauek eta Legeak Artezkaritza Kontseiluarentzat ezarritako ezintasun, debeku, inskripzio, ordainsari eta erantzukizunari buruzko arauen mempe egongo dira.

BOST.- Artezkaritza Kontseiluak Kooperatibaren jardueren eta aurreikus daitekeen bilakaeraren berri eman beharko dio Zaintza Batzordeari hiru hilabetero behin gutxienez.

SEI.- Zaintza Batzordeak ondoko ahalmenak izango ditu:

- A) Urteko kontuak berrikustea eta kontu hauei eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamenari buruzko aginduzko txostena jaulkitzea Batzar Nagusiari aurkeztu aurretik, Kooperatibak bere finantzen egoera-orriak kontu-ikuskapenpean jarri behar dituenean izan ezik.
- B) Kooperatibaren liburuak berrikustea.
- C) Batzar Nagusirako delaldia egitea Kooperatibaren intereserako beharrezkotzat hartzen duenean eta Artezkaritza Kontseiluak eskaerari ezentzun egiten dionean, Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera.
- D) Ordezkaritza-idatziaren egokitasuna ikuskatu eta kalifikatzea eta, oro har, Batzarretara joateko eskubideari buruzko zalantzak edo gora-beherak ebaztea.
- E) Legez aurreikusitako kasuetan Kooperatiba Elkartearen erabakiei aurka egitea.
- F) Batzar Nagusiari honek eskatutako egoera edo gai zehatzen beri ematea.
- G) Batzar Nagusiak gainerako organoetako kideak aukeratu eta izendatzeko burutu beharreko prozesua zaintzea.
- H) Ezintasun-kausaren batean sartuta dauden Artezkaritza Kontseiluko kideak kargutik kentzea eta Batzar Nagusia egin arte ezinbestekoak diren neurriak hartzea.
- I) Euskadiko Kooperatibei buruzko Legeak espreski ematen dizkion gainerako funtzioak betetzea.

Zaintza Batzordeak bere zeregina betetzeko beharrezkoak diren egiaztapenak egiteko eskubidea izango du eta lan hau bertako kide bati edo batzuei agindu ahal izango die edota, beharrezkotzat hartzen badu, adituen laguntza eskatu ahal izango du.

ZAZPI.- Zaintza Batzordeak aurreko zenbakian adierazitako eta Legeak ezarritako funtzioak beteko ditu baina ezin izango du inola ere Kooperatibaren kudeaketan eta ordezkaritzan zuzenean esku hartu. Hala ere, administrazio-organoren edo bertako kideen aurrean ordezkatuko du Kooperatiba aipatutako organoari judizialki aurka egiten zaionean edo bertako kideekiko kontratuak amaitzen.

ZORTZI.- Zaintza Batzordea gutxienez hiru hilabetero behin bilduko da Lehendakariak hiru eguneko aurretiaz idatziz egindako deialdiaren bidez eta balio osoz eratuta geratuko da bilkurara kideen %50 baino gehiago joaten direnean. Botoaren ordezkaritza ez da onartuko.

BEDERATZI.- Zaintza Batzordearen funtzionamendiu-araubidea, atal honetan aurreikusi gabekoan, Kooperatibaren Barrie Araudiak xedatutakoari lotuko zaio.

IV. ATALBURUA KOOPERATIBAREN EKONOMIA-ARAUBIDEA

38. ATALA.- ERANTZUKIZUNAK

BAT.- Bazkideek Kooperatibaren eragiketetan duten erantzukizun ekonomikoa, harpidetu dituzten kapital sozialerako ekarpenak ordaintzera mugatzen da.

BI.- Ordaindu beharreko ekarpenen zenbatekoa finkatu ondoren baja hartzen duen bazkideak, ez du inolako erantzukizunik izango baja hartu aurretik Kooperatibak egindako zorrekin.

39. ATALA.- KAPITAL SOZIALA

BAT.- Kooperatibaren kapital soziala, bazkideen derrigorrezko edo borondatezko ondare-ekarpenek osatzen dute.

BI.- Kooperatibaren gutxienerako kapitala milioi bat pezetatan finkatzen da.

HIRU.- Kapital sozialerako ekarpenak partaidetza-libreta nominatiboen bidez kreditatuko dira. Libreta hauetan, hala badagokio, ekarpen edo eguneratzeak eta bazkideari egotzitako galera edo zigorrengatik egindako kenkariak isladatuko dira.

LAU.- Ekarpenak dirutan egingo dira.

BOST.- Bazkide laguntzaileek izan ezik, ezin bazkidek ezingo du kapital sozialaren herenetik gorako ekarpena izan.

40. ATALA.- DERRIGORREZKO EKARPENAK

BAT.- Bazkideek hasierako derrigorrezko ekarpen bat egin beharko dute bazkide izateko. Derrigorrezko ekarpen hau bost mila pezetakoa izango da bazkide erabiltzaileentzat eta ez-aktiboentzat eta hamar mila pezetakoa bazkide laguntzaileentzat.

Halaber, bazkide bakoitzaren kapital sozialaren gutxienerako zenbatekoa hasierako derrigorrezko ekarpen gisa ezarritako kopuru berean finkatzen da.

BI.- Bazkide izateko hasierako derrigorrezko ekarpena, harpidetzeko unean ordaindu beharko da osorik.

HIRU.- Bazkide baten kapital sozialerako ekarpena hasierako derrigorrezko ekarpena baino txikiagoa bada, Artezkaritza Kontseiluak berehala errekerimendua egingo dio eta bazkideak ekarpen hori sei hilabeteko epean egin beharko du, errekerimendua jasotzen duen egunetik kontatzen hasita.

LAU.- Batzar Nagusiak urtero finkatuko du bazkide berrientzat hasierako derrigorrezko ekarpenaren kopurua, eta derrigorrezko ekarpen berriak exijitzeko erabakia hartu ahal izango du.

Kapitalaren derrigorrezko zabalkuntzarekin ados ez dagoen bazkideak baja hartu ahal izango du eta baja hau justifikatutzat hartuko da.

Lehendik zeuden borondatezko ekarpenak baliagarriak izan daitezke derrigorrezko ekarpen berriak estaltzeko, betiere Artezkaritza Kontseiluari idatziz eskatzen bazaio hilabete bateko epean, erabakia hartzen den egunetik kontatzen hasita.

41. ATALA.- KAPITAL SOZIALERAKO BORONDATEZKO EKARPENAK

BAT.- Batzar Nagusiak bazkideek egindako kapital sozialerako borondatezko ekarpenen onarpena erabaki ahal izango du eta, gainera, ekarpen horien baldintzak finkatuko ditu.

BI.- Artezkaritza Kontseiluak bazkideen borondatezko ekarpenak onartu ahal izango ditu, betiere Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen 59-2 eta 57-4 ataletan aurreikusitakoari jarraiki ordainketa- eta kopuru-mugak errespetatuta.

42. ATALA.- EKARPENEN ORDAINKETA ETA EGUNERATZEA

BAT.- Derrigorrezko kooperatiba-ekarpenek ez dute interesik sortuko.

BI.- Kooperatibaren balantzea, zuzenbide komuneko elkarteen aurreikusitako termino berberetan eta mozkin bereberekin erregularizatu ahal izango da.

HIRU.- Balantzea erregularizatzearen emaitzazko gainbalio osoa aurreko ekialdietako galerak konpentsatzera zuzenduko da eta gainerakoa berriz, erreserba-fondo banaezin batera, Batzar Nagusiak erabakitako kopuruetan.

43. ATALA.- EKARPENEN ESKUALDAKETA

BAT.- Kooperatiba-ekarpenak eskualdagarriak izango dira eta oinarritzko bi helburu izango dituzte:

A) Eskualdagarritasuna ahalik eta gehien malgutzera.

B) Itzulketa-datetan izandako alterazioengatik eskualdaketa-eragiketek Kooperatibaren finantza-egoera kaltetu ez dezaten lortzea.

BI.- Eskualdaketa egiteko Artezkaritza Kontseiluaren alde aurreko adostasun-erabakia beharko da.

44. ATALA.- EKARPENEN ITZULKETA

BAT.- Berreskuratzeko eskubidea

Bazkide izaera galtzen den kasu guztietan, bazkideek eta beren eskubidedunek ahalmena izango dute beren kooperatiba-ekarpenen itzulketa exijitzeko, baja ematen deneko ekitaldiaren itxiera-balantzean izango zuten balioarekin eta legezko xedapenetan ezarritako baldintzetan.

BI.- Kenkariak

Kanporatzeagatiko bajaren edo justifikatu gabeko borondatezko bajaren kasuan, Artezkaritza Kontseiluak %30era bitarteko kenkaria ezarri ahal izango du bazkidearen ekarpenek bajaren datan zuten zenbatekoaren gainean. Borondatezko ekarpenei ez zaie inolako kenkaririk egingo.

HIRU.- Itzulketarako baldintzak

Itzulketa-epaia 5 urtekoa izango da gehienez ere, bajaren datatik kontaktzen hasita. Bazkidea hiltzen bada, kausadunei gehienez ere urtebeteko epean egin beharko zaie itzulketa. Hau finkatzea Artezkaritza Kontseiluaren aginpidea da eta honek Kooperatibaren finantza-egoera eta bajaren zirkunstantziak hartuko ditu kontuan:

Itzultzeko geratzen diren kopuruak ezingo dira eguneratu baina diruaren legezko interesa jasotzeko eskubidea emango dute.

45. ATALA.- PARTAIDETZA BEREZIAK

BAT.- Partaidetza berezizat, bazkideek edo hirugarrenek egiten dituzten eta bost urtetik gorako itzulketa-epaia duten ondare-ekarpenak hartuko dira. Ekarpunen mugaeguna Kooperatibaren likidazioaren datan suertatzen bada, kapital sozial gisa kontabilizatuko dira.

BI.- Partaidetza berezien onarpena Batzar Nagusiaren aginpidea da. Honek ondoko alderdiak finkatuko ditu dagokion erabakian:

A) Kopurua eta jaulkipen-baldintzak, bazkideen berezko eskubideak ezein kasutan esleitu ezin izango dituztenak.

B) Ekarpenen erakusgarri diren tituluei baiore higigarrien izaera ematen zaien.

46. ATALA.- BESTELAKO FINANTZAKETAK

BAT.- Batzar Nagusiak komenigarritzat hartzen dituen sarrera-kuotak eta aldizkakoak finkatu ahal izango ditu. Sarrera-kuotaren kopurua hasierako derrigorrezko ekarpenaren %25ekoa izango da gehienez ere.

BI.- Sarrera-kuotek eta aldizkakoek ez dute kapital soziala osatzen eta ezingo dira ezein kasutan berreskuratu.

HIRU.- Kooperatibak, aldez aurretik bidezko erabakiak hartu ondoren, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legean aurreikusitako edozein finantzaketa-modalitatearen aurka errekurtsoa egin ahal izango du.

47. ATALA.- SOBERAKIN GARBIAK FINKATZEA

BAT.- Soberakin garbiak finkatzeko, merkataritza-elkarteentzat ezarritako arau eta irizpideak aplikatuko dira, hurrengo azpiatalean xedatutakoa kontuan hartuta.

BI.- Partida kengarrizat ondokoak hartuko dira:

- A) Kooperatiba-kudeaketarako emandako ondasunen zenbatekoa, gehienez ere merkatuko prezioen balorazioarekin.
- B) Bazkide langileen lan-aurrerakinen zenbatekoa kopuru globala gehienez ere sektorerako ohikoak diren ordainsariena izanik.
- C) Kapital sozialerako ekarpenek, partaidetza bereziek, prestazioek eta kapital sozialean barne hartu gabeko bestelako finantzaketek sortutako interesak.
- D) Legez baimendutako amortizazioak.
- E) Kooperatibaren funtzionamendurako beharrezkoak diren gastuak.
- F) Ondorio berberetarako zerga-legeriak eta indarrean dauden kontabilitate-arauek onartutako beste kenkari guztiak.

48. ATALA.- SOBERAKINEN BANAKETA

BAT.- Soberakin garbiak, aurreko ekitaldietako gainerak kopentsatzera zuzendutako kopuruen eta dagozkien zergen kenkaria egin ondoren, soberakin erabilgarriak izango dira.

BI.- Batzar Nagusiak ondoko erregelei lotuta banatuko ditu soberakin erabilgariak:

- A) %30 gutxienez Derrigorrezko Erreserba Fondora eta Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Fondora. Portzentaia horretatik, %20 gutxienez Derrigorrezko Erreserba Fondoari dagokio eta %10 gutxienez Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoari.

Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Fondora zuzendu beharreko gutxieneko portzentaia erdira murriztu ahal izango da Derrigorrezko erreserba Fondoaren zenbatekoa kapital sozialaren %50era iritsi arte.

- B) Gainerako soberakin erabilgarriak Borondatezko Erreserba Fondo Banaezin bat eratzeraz zuzenduko dira, Kooperatibak etorkizunean izan ditzakeen galerak zurgatu edo kompensatzeko helburuarekin.

49. ATALA.- KOOPERATIBAREN DERRIGORREZKO FONDOAK

BAT.- Derrigorrezko Erreserba Fondoa

Kooperatibaren sendotze, garapen eta bermera zuzendutako Derrigarrezko Erreserba Fondoa banaezina da bazkideen artean.

Derrigorrezko Erreserba Fondora ondokoak zuzenduko dira nahitaez:

- A) Aurreko atalean ezarritakoaren arabera Batzar Nagusiak ezartzen duen soberakin erabilgarrien portzentaia.
- B) Bazkide baten bajaren kasuan, kapital sozialerako derrigorrezko ekarpenen gaineko kenkariak.
- C) Sarrerakuotak,

BI.- Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoa

Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoak ondoko helburuak izango ditu:

- A) Bazkideak eta langileak kooperatiba-printzipioetan, hauen baloreetan edo Kooperatibaren lanari eta gainerako kooperatiba-jardueri lotutako gaietan prestatu eta beztea.
- B) Kooperatiben arteko harremanak sustatzea, bigarren mailako kooperatibetan, integrazio-kooperatibetan eta kooperatiben arteko sustapen, laguntza, zuzendaritza komun edo laguntza-jardueretarako sortutako gainerako erakundeetan partaidetza izateagatik gastuen estaldura barne hartuta.
- C) Kultur, lanbide- eta laguntza-sustapena eta kooperatibismoaren ezaugarrien zabal-kundea Kooperatibaren gizarte-ingurunean eta gizartearen oro har.

Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Fondora ondokoak zuzenduko dira nahitaez:

- A) Aurreko atalean ezarritakoaren arabera Batzar Nagusiak ezartzen duen soberakin erabilgarrien portzentaia.
- B) Bazkideei ezarritako disziplina-zigor ekonomikoen zenbatekoa.

Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoa bahitezina da eta bere zuzkidurek balantzearen pasiboan agertu beharko dute beste partidetatik bereiz.

Hezkuntza eta Kooperatiba Sustapenerako Fondora zuzentzen den aplikatu edo afektatu gabeko zenbatekoa Euskadiko Zor Publikoko tituluetan gauzatuko da bere zuzkidura ezarri eta hurrengo ekitaldiaren barruan.

50. ATALA.- GALEREN EGOZTEA

BAT.- Batzar Nagusiak ondoko erregelei jarraiki egingo du galeren egozteak:

- A) Borondatezko Erreserba Fondorik badago, galera guztiak fondo horiei egotziko zaizkie.
- B) Derrigorrezko Erreserba Fondoari, soberakin positiboak eman dituzten azken bost urteetan (edo eratu zenetik, bost urte horien aurretik eratu ezean) legez derrigorrezkoak diren fondoetara zuzendu denaren batezbesteko portzentaia egotzi ahal izango zaio gehenez ere.
- C) Derrigorrezko eta borondatezko fondoekin konpentsatu gabeko kopurua bazkideei egotziko zaie.

BI.- Aurreko azpiatalean adierazitakoa kontuan hartuta ere, Batzar Nagusiak ekitaldi bateko galera guztiak edo zati bat asignazio indibidualizaturik gabeko kontu berezi bati egotzeko erabakia hartu ahal izango du. Horrela, amortizazioa etorkizuneko emaitza positiboan edo, hala badagokio, balantze-erregularizazioen kargurakoa izango da, gehenez ere bost urteko epe batean.

Bost urte horiek igaro ondoren konpentsatu gabeko saldorik geratzen bada, diferentzia une horretan dauden bazkide guztien artean banatuko da. Aldi horretan baja hartzen duten bazkideei konpentsatzeko geratzen diren galeren fondotik dagokien zatia egotziko zaie.

51. ATALA.- KONTUEN IKUSKAPENA

BAT.- Kooperatibak urteko kontuen eta kudeaketa-txostenaren kanpoko kontu-ikuskapena aginduko du derrigorrezkoa denean edo Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen 72, atalean aurreikusitako kasuren bat gertatzen denean.

BI.- Kontu-ikuskaririk Batzar Nagusiak izendatuko ditu eta, halakorik ezean, Artezkaritza Kontseiluak. Azken kasu honetan, Kontseiluak izendapena jakinaraziko dio egiten den lehen Batzar Nagusiari.

V. ATALBURUA KOOPERATIBA ELKARTEAREN DOKUMENTAZIOA ETA KONTABILITATEA

52. ATALA.- KOOPERATIBA ELKARTEAREN DOKUMENTAZIOA

BAT.- Kooperatibak ondoko liburuak eramango ditu ordenatuta eguneratuta:

- A) Bazkideen errolda.
- B) Kapital sozialerako ekarpenen errolda.
- C) Batzar Nagusiko, Artezkaritza Konseiluko eta Zaintza Batzordeko.
- D) Inbentario eta balantzeen liburuak.
- E) Liburu egunkaria.
- F) Bestelako legezko xedapenek exijitzen dituztenak. Erabili aurretik Kooperatiben Erroldan gaituko dira.

BI.- Idazpen eta oharpenak informatika-prozeduren edo bestelako prozedura egokien bidez egingo dira. Ondoren korrelazioan koadernatu eta Kooperatiben Erroldan legezatu egingo dira sei hilabeteko epean, ekitaldia isten den egunetik kontatzen hasita.

Horren kaltetan izan gabe, informatika-prozeduren edo antzekoen bidez lantzen diren eta aurreko azpiatalean aipatu diren organoetako aktak Kooperatiben Erroldara igorriko dira ziurtagiri bidez, bi hilabeteko epean onartzen diren egunetik kontatzen hasita.

53. ATALA.- KONTABILITATEA

BAT.- Kooperatibak Merkataritza Kodean eta gainerako legezko xedapen aplikagarrietan xedatutakoari jarraiki eramango du bere jarduerari dagokion kontabilitatea, Kooperatibaren ekonomia-araubidearen berezitasunak errespetatuta.

BI.- Ekitaldiaren itxieran formulatu beharreko Kooperatibaren urteko kontuek balantzea, galera eta irabazien kontua, memoria eta, urteko kontuen ikuskapena egin behar izanez gero, kudeaketa-txostena barne hartu beharko dute.

54. ATALA.- URTEKO KONTUEN GORDAILUA

Artezkaritza Kontseiluak urteko kontuak eta, hala badagokio, kudeaketa-txostena kontui-kuskarien txostena aurkeztuko ditu Kooperatiben Erroldan gordailatzeko. Horretarako hilabete bateko epea izango du Batzar Nagusiak onartzen dituenetik kontatzen hasita eta Kontseiluko kide guztiek sinatuko dituzte. Administratzailearen batek ezin badu, ez-egite horren arrazoia espreski adieraziko da.

VI. ATALBURUA DESEGITEA ETA KITAPENA

55. ATALA.- DESEGITEAREN ARRAZIOIAK ETA ERABAKIA

BAT.- Kooperatiba desegiteko arazoiak ondokoak izango dira:

- A) Estatutuetan definitutako Kooperatiba Elkartearen helburua gauzatzeko ezintasun nabaria.
- B) Segidako bi urtetan Kooperatibako organoak geldik egotea edota Kooperatibaren jarduera arrazoi justifikaturik gabe etetea.
- C) Bazkide-kopurua Kooperatiba bat eratzeko legez beharrezkoa den gutxienekoa baino kopuru txikiagora murriztea harrabi hilabetetik gorako epe batean horrela jarraituz gero.
- D) Kapital soziala Estatutu hauetan ezarritako gutxienekoa baino kopuru txikiagora murriztea hamabi hilabeteko epean horrela jarraituz gero,
- E) Erabateko bategite edo zatiketa.
- F) Epailearen ebazpenaren ondorioz Kooperatiba Elkarteak porrot egitea.
- G) Espreski horretarako deitutako Batzar Nagusiaren erabakia.
- H) Legeak ezarritako beste edozein arrazoi.

BI.- Desegiteari buruzko erabakiak gehiago soilz hartuko dira, E) eta G) kasuetan izan ezik. Kasu hauetan bi herenen gehiengo behar da.

HIRU.- Aipatutako arrazoietariko edozein gertatuz gero, Artezkaritza Kontseiluak Batzar Nagusirako deialdia egin beharko du bi hilabeteko epean eta Zaintza Batzordeak edo beste edozein bazkidek egin ahal izango dio errekerimendua Artezkaritza Kontseiluari honek deialdia egin dezan.

Artezkaritza Kontseiluak eta edozein interesatik Kooperatibaren desegitea judiziala eskatu ahal izango du ondoko kasuren bat gertatuz gero:

- A) Batzar Nagusirako deialdia egiten ez ba da.

- B) Batzar Nagusia Estatutuetan finkatutako epean biltzen ez bada.
- C) Batzar Nagusiak, bildu arren, desegiteari buruzko erabakia hartu ezin badu.
- D) Batzar Nagusiak, bildu ondoren, desegitearen aurkako erabakia hartzen badu.

LAU.- Desegiteari buruzko erabakia edo desegitea deklaratzeko duen epailearen ebazpena Kooperatiben Erroldan inskribatu beharko da. Horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako zabalkunde handiko egunkari batean argitaratuko da.

56. ATALA.- KITAPENA

Kooperatibaren kitapena Euskadiko Kooperatibei buruzko Legearen 89tik 96ra bitarteko ataletan eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarrietan xedatutakoari jarraiki egingo da.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- KOOPERATIBA-ARBITRAJEA

Kooperatibaren eta beste Kooperatiba batzuen edota Kooperatibaren eta bazkideen artean sortzen diren eta zuzenbidearen arabera alderdien artean askatasunez erabiltzeko gaiei buruzkoak diren auziak, Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiaren arbitrajepean jarriko dira. Auzi horiek kooperatiba-izaerako printzipio, arau, ohitura eta usadioen interpelazio eta aplikazioari lotuta egongo dira.

Orioko Herri Ikastola, Kooperatiba Elkartea, era berean, Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarteko bazkidea da.

Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkartea 2009ko ekainaren 13an eratu eta 2009ko abenduaren 18an Merkataritza-Erregistroaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.